

Azken orenak dute GOGOAREN kolpatu

2021eko martxoko data darama eskuetan duzun ale honen aurreko aleak, hogeita bigarrenak. Bien bitartean, aurrena online joan dira argitaratzen hemen bildu ditugun testuak. Baina ez guztiak. Bi urteotan GOGOAREN muina kolpatu dute bi GOGOAKIDE finen heriotzek:

- Jesus Mari Larrazabal Antia. Zumaia, 1948-12-25 / Donostia, 2021-06-29
- Pello Huizi Petrikorena. Arano, 1942-11-27 / Bermeo, 2023-03-30

Biak oroitzeko eta egindako guztia eskertzeko idatziak dira irakurtzen ari zaren lerro hauek. Biak izan ziren erabakigarriak GOGOAREN sortzeko, lehenik, eta bidea egiteko, gero. Jesus Marik zuzendari lanak egin zituen pare bat urtez, baina, bestela, denetik egin zuten biek ere: testuak idatzi, ebaluatu eta zuzendu (eduki nahiz hizkuntza aldetik), eta beste guztiok lanera bultzatu. Bakoitzak bere moduan, hori bai. Berritsua zen bata, eta zalapartaria. Isila bestea, hitz-jarioari nahiz bolumenari dagokienez; apaltasunaren, umiltasunaren eredutzat jo genezake. Harrotasunarena litzateke bestea (ez harrokeriarena, baina). Bi estilo diferente, konpromiso sendo bat: euskararen eta jakintzaren aldeko konpromiso erradikala.

70 urte betetzera zihoala, eta ez horrenbeste erretiroaren aitzakian, atondu genuen Pelloren omenezko artikulu-bilduma Jesus Marik eta biok (Korta eta Larrazabal 2011a). Proiektua aurkeztu genionean, ezetz erantzun zigun; lotsa puntu nabarmen batekin. Jesus Marik, bereziki, entzungor egingen ziola ohartu zenean, ordea, aurrera ateratzen lagundu zigun; egin behar bagenuen, txukun egin genezan behintzat. Liburua aurkeztu genionean, apal segitu zuen, umil, lotsati; baina pozik. Sarreran egindako ohar biografikoetan oinarrituta (Korta eta Larrazabal 2011b) osatu dut beheko biografia txikia.¹

Bere 70. urtebetetzearen aitzakiarekin atondu genuen Larrait Zubeldiak eta biok Jesus Mari Larrazabalen omenezko GOGOAREN ale berezia (Korta eta Zubeldia 2018). Isilean eraman genuen prestakuntza, bestela proiektuari ezetz esan eta birrinduko zuen beldurrez. Baina iritsi zitzaion berria, nahiz ez osoki. Ordurako ezetz tinkoak botatzeko gaitasuna ahuldua zuen nonbait,

¹ Iñaki Zubeldiak, Mikel Haranburuk eta Larrait Zubeldiak ere lagundu didate informazioa osatzen.

eta ez zigun lanean oztoporik jarri. Hori bai, pribatuan aurkeztu behar izan genizkion, urtebetetze bezperatan, *espezial* azaleztatu genizkion bi aleak. Pozik geratu zela iruditu zitzaigun. Parte hartu zuten guztiei eskerrak emateko deitu ziela esan ziguten. Orduan idatzitakoa (Korta 2018) gogoan dakargu orain beheko ohar biografikoa.² Egoki iruditu zaigu hil zenean argitaratutako zutabea ere ekartzea (Korta 2021).

Hurrenez hurren, Pello Huiziri eta Jesus Mari Larrazabali buruzko ohar biografiko bana jaso dugu hemen, beren heriotzen alderantzizko ordena kronologikoan. Orain hilabete eskas hil zitzaigunarena lehenik; duela ia bi urte hil zitzaigunarena, hurrena. Bi gizon zintzo hauen azken orenak gogor dute GOGOA kolpatu... baina ez dute hobirat eraman. Oraingoz.

Pello Huizi (1942-2023)

Gertatu eta egun batzuetara jakin genuen Pelloren heriotzaren berri. Martxoaren 30ean, Bermeon, hil zela dio egunkariko eskelak, baina apirilaren 3an jakin genuen, Psikologia Fakultateko mezua jaso genuenean. Tolosan egina ziotela hileta apirilaren 1ean, eta informazio gutxi gehiago.

Frantziskotarra zen Pello, eta apala. Apala eta frantziskotarra. Anaia txikia (*frater minor*). Ez dakit, bere kasuan, bi ezaugarri horien arteko erlazio kausalik badagoen, baina zinez zen apala eta umila.

Aranon jaio zen, zortzi seme-alabako familia batera, eta hamar urte bete zituenerako Arantzazura bidalia zuten, frantziskotar ikasketak egiteko. Hiru urte egin zituen Arantzazun, bi Foruan, bat Zarautzen, hiru Oliten eta beste lau berriro Arantzazun. Ezin dut irudikatu ere egin zein gogorak egin behar izan zitzaizkion Pello ume lotsatiari Arantzazuko urte horiek. Zigor fisikoa sarri erabiltzen zutela entzuna dut, baina Pellori bi aipamen —bi baieztapen, ez bi kexu— soilik aditu nizkion urte haiei buruz: Arantzazun urte oso bat ohean pasatu behar izan zuela gaixo, hain zuzen, organoa jotzen ikastea tokatzen zitzaionean; eta lauzpabost urte pasatu behar izan zituela Aranoko baserrira itzuli eta ama berriz ikusi ahal izan zuen arte. EHUtik erretiroa hartu zuenean, gogo eta diziplina handiz heldu zion Donostian piano-eskolak hartzeari. Nerabazaroko amaren galerak utzitako hutsunea betetzeko modurik topatu zuen ez dakit.

Teologia ikasketak eginda atera zen Arantzazutik. Filosofia ikasi zuen Oliten. Madrilgo unibertsitate Complutensera bidali zuten, 1969an, Psikologia ikasketak egitera. Orduan hasi zen pentsamenduaren, hizkuntzaren eta arrazoitzaren psikologian espezializatzen. Lizentzia bukatu eta Arantzazura

² Josu Acostak eta biok bideo-filma ere osatu genuen, eta 2022ko ekainean Zumaian erakutsi genuen hainbat senide, lagun, burkide eta lankideren aurrean. Bertsio berria zabalduko dugu laster.

itzuli zen irakasle lanetarako, eta, han beste lau urte eginda, UZEIra batu zen, 1978an, Joseba Intxaustiren gidaritzapean. Berak hartu zuen *Psikologia Hiztegia* egiteko ardura nagusia.

1982ko azaroan EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzian Fakultatean hasi zen irakasle, eta orduko irakaskuntzarako baldintzen harira, 1986an egin zuen lizentzia-tesia “Escalas de sinceridad en función de instrucciones, inteligencia y sexo” (“Zintzotasun-eskalak, jarraibide, adimen eta sexuaren arabera”) izenburuarekin Madrilgo Complutensean (Huizi 1988). Doktore-tesia, berriz, 1994an burutu zuen, EHUn, beste izenburu honekin: *Nortasunaren eta edukiaren ondorioak arrazoibide silogistikoan* (Huizi 1994).

1983an, unibertsitate-ikasketekin hasi nintzenean, Pello izan nuen lehen irakasleetako bat. Selektibitatea euskaraz egiten zen lehen urtekoak ginen, eta euskaraz zen filosofia, psikologia eta pedagogiako lehen urteko komuna. Psikologiarako sarrera ematen zigun Pellok, nongoa zen asmatzerik uzten ez zuen euskara batu gardenean.

1993-94.ean, ILCLiren sorrerak batu gintuen atzera. Biok ere irakasle eta ikertzaile ginen orduan, baina ni haren ikasle izana nintzen, eta gizalegezko begirune akademiko eta pertsonala zor niola sentitzen nuen. Hierarkia iraultzen zuen, ordea, elkar ikusten genuenero. Ikaslea bera bazen bezala jokatzeko nirekin, eta ezinegona eragiten zidan. Frantziskotar izaerari egozten nion egoeraren absurdoa hasieran. Apaltasuna edo umiltasuna berezkoa zuela pentsatu nuen gero. Eta lotsarekin ere nahasten zuela; umore pittin batez bustitako lotsaz (xamurrak egin zitzaizkidan Donostiako eskolako ikasturte bukarako kontzertuan jotzea egokitzen zitzaiola-eta aitortu zizkidan nerbioak eta lotsak, 60 urteak aspalditxo pasata zituen gizon baten larrurako).

ILCLikide konprometitua eta langilea zen, eta, besteok bezala, ingelesarekin borrokan ibili zen, euskaldunok nazioartean jarduteko behar genuen komunikazio-baliabide gisa. Baina euskara zuen konpromiso nagusi, eta GOGOArekin sutsuki engaiatu zen, 2000. urtearen bueltan sortze lanetan hasi ginenean. Testuak idatzi zituen, itzuli, ebaluatu eta zuzendu. Eta gutxitan erabiltzen zuen telefonoa edo e-maila. ILCLIra etortzen zen (Donostiako Mirakruz gaineko Villa Asuncioneke egoitzara, batez ere) testua bertatik bertara, paperean eta disketean ematera, eta aipatu beharrekoak aipatzera. Etenaldi komenigarria egiteko aukera ere ematen zigun, bestelakoez hitz egiteko. Astean behin gutxienez, eguna ere ematen zuen, berari egokitutako mahaian. Ezin txukunago izaten zuen beti mahai gain hura.

65 urte bete zituen egun berean, 2007ko azaroaren 27an, hartu zuen erretiroa EHUtik. Eta gustura hartu ere, irakaskuntza lanei dagokienez, behintzat. Nazka-nazka eginda zegoen eskolekin. Ikasle asko zeukan. Eta gero eta lotsaga-beagoak, adin bateko pertsona apalaren aurrean, lotsagabetuagoak. Sufritu egin zuen Pellok azken urteetako eskolekin. Erretiroa liberazioa izan zen beretzat.

Segitu zuen ILCLlra etortzen, Donostiako etxetik oinez campusera, edo Tolosakotik trenez. Lanen bat ekartzen zuen eta, normalean, solasaldi labur baterako gonbita. Horietako batean, liburutegitik liburuak maileguan hartzeko Psikologiako lankide baten txartela erabiltzen zuela esan zidan, EHUK e-mail helbidearekin batera liburutegi-txartela kendu ziola-eta erretiratu eta biharamunean bertan. Nola hala konpondu genuen hura (uste dut, oro har, EHUK erretiratuei ostikoa —eta gizonezkoei gorbata; emakumezkoei zapia edo— ematen jarraitzen duela unibertsitatea berriz zapal ez dezaten). Oho-rezko Kide Emeritu (*Emeritus Honorary Fellow*) izendatu genuen ILCLIn, egiten segitzen zuen lana aitortzeko.

Osasuna kaskartzen joan zitzaion neurrian, gero eta gutxiago ikusten genuen. Azkenaldian Bermeoko frantziskotarren etxean bizi zela, Gurutzetako ospitaletik eta, hala, bihotzak eskatzen zuen artatzetik hurbilago, horixe zen hari buruz jaso nuen azken-aurreko berria. Ez zenez telefonoa edo e-maila erabili zalea, orain ia bi urte Jesus Mari hil zenean, ez nuen modurik izan berria zuzenean emateko. Kezka ere eragiten zidan berriak zer eragingo zion bihotzean. Bihotza ahula baitzuen anaia txikiak.

Jesus Mari Larrazabal (1948-2021)

Txikitatik ezohiko gaitasunak zituen Jesus Marik eta, orduko eskolara zurrunez halakorik nekez bideratzen bazuten ere, pasatu zuten pare bat maila aurrera, Zumaian, Tolosako eskolapioetara *interno* joan aurretik; ala ondoren, ez nago seguru. Eskolapioetan etxean hazitako abertzaletasuna lantzen hasi zen, aztertzen, kritikatzeko, sendotzen.

Ikasteko grina aseezina erakutsi zuen beti, eta etxetik Frantziara bidali zuten sistematikoki gaztetan, frantsesa ikas zezan. Baita ikasi ere. Ama-hizkuntza frantsesa zuela pentsa omen zezakeen jatorrizko frantses-hiztunak. Ingelasa ikastera geroago bidali zuten Londresera, eta ahoskera atzerritarra utzi zion horrek hizkuntza horretan. Nolanahi ere, Frantziarekin izan zuen beti harremanik sakonena.

Han, Nanterren, 1968ko maiatzaren ondoko unibertsitatean ikasi zituen Ekonomia eta Filosofia. Promozioan lehena bukatu zuen ekonometrian. Filosofia ere egitea hautatu zuen, eta filosofian logikan espezializatzea; horrez gain, ikerketarekin jarraitzeko AEBetara joateko aukerari muzin egin eta Euskal Herrira etortzea. Deustuko unibertsitateak Donostian duen campuserako gonbita jaso zuen, baina unibertsitate publikoa hobetsi zuen. Bergarako UNEDera etorri zen, eta Zorroagako UPV/EHUra. Bi horietan hasi zuen bere akademia-bizitzako urterik eta indarrik onenak hartuko zituen unibertsitate-lan konplexua. 1992an lortu zuen EHUKo Logikako katedra. Aurretik, Filosofia Fakultateko dekanorde izan zen 1987tik 1989ra, eta, segidan, Logika eta

Zientziaren Filosofia Saileko zuzendari 1998tik 2001era, eta ILCI institutuaren zuzendari 2008tik 2009ra. 2017an erretiratu zen.

Ofizialki, 1976an hasi zen Euskal Herrian unibertsitate-lanetan: Bergarako UNEDen 1981 arte aritu zen, eta EHUen 1981etik, 2017an erretiroa hartu zuen arte. Baina hasia zen lehenago ere Udako Euskal Unibertsitateak Lapurdin egiten zituen biltzarretan parte hartzen. Ekonomian eta zientzia formaletan zebilen ikasle askorentzat erreferente bihurtu zen Paristik "jaisten" zen zumaiar gaztea.

Unibertsitategintza publikoak ere zor handia dauka harekin. Parte-hartze aktiboa izan zuen EHUko estatutuen idazkuntzan irakasleen egonkortasuna lortzeko, eta baita egituren sorreran ere. Gobernu Batzarreko kidea izan zen 1988tik 1991ra eta Gizarte Kontseiluko kidea 1990 eta 1991n. Ikerketa Batzordean, Erreklamazio Batzordean eta Argitalpen Kontseiluan ere aritu zen beste urte askoan. Hori bai, oposizioan beti. Oposizio publikoan. Agintean zegoen inori kontzesiorik batere egin gabe. Eztabaida publikoan gogorra, oso gogorra, izan zitekeen arrazoirik erabiltzen ez zuen edozeinekin. Sonatuak omen ziren, esate baterako, Emilio Barbera errektorearekin eta bere hainbat errektoreordeekin izandako sesioak. Amarruak egiteko, azpikeriatan ibiltzeko, ezintasun nabarmena zuen. Gorroto zuen iruzurra.

Unibertsitateari hainbeste urtetan eskainitako dedikazioan filosofia- eta logika-irakaskuntzaren maila eta zorrotasuna bermatzeak zuen lehentasuna; bere irakaskuntza serioa eta zorrotza zen, hasteko, eta halakoa izatea nahi zuen berak formatuko zituen irakasle gazteen eskutik. Hori egiteko ikertu egin behar du unibertsitate-irakasleak. Ikerketa duina egiteak nazioarteko sareetan parte hartzea eskatzen du, bestalde. Eta horrek ingelesa ezagutzea. Gehitu horri unibertsitate euskalduna eraikitzeke konpromisoa, eta Jesus Marik abiatutako lanaren tamaina irudikatzeke modua izan dezake batek: (1) irakaskuntza zorrotza, (2) nazioarte mailako ikerketa, (3) euskara, eta hori guztia (4) unibertsitate publikoan.

Beste askorekin partekatzen zituen helburutzar horiek, jakina. Aldarrikapen gisa euskal gizartearen gehiengo zabalak babesten dituela esatea ez da gehiegi esatea. Duela berrogei urte hasita, egunerokoan horien alde lanean aritu direnak askoz gutxiago dira, ordea. 1980. urtearen bueltan izango zen, ziur asko, irakaskuntza maila gorena bilatzen zuen inor; baina, orduan, ikerkuntzaren garrantzia gutxietsiko zuen praktikan, edo euskararena. Euskaltzaleak ere ez zuen askotan estimu handian izango ingelesez egin beharreko ikerketa; edo askok unibertsitate pribatuan izango zuen begia. Lehentasuna nazioarteko puntako ikerketan izan duten beste batzuek, aldiz, diru publikoan ondo hornitutako proiektu pribatuak egin dituzte, euskararen presentzia itxura hutsekora mugatuz. Bestela esanda, eta labur, Jesus Mariz aparte inork gutxi heldu die lau zutabeei batera, bakar bati ere uko egin gabe. Eta parekorik gabea bihurtu zuen horrek bere lana. Jesus Mari bakarrenetakoa izan zen, bakarra agian, lau fronte horietan jarduten, eta jardunak praktikan ba-

kardadera eraman zuen seguru asko. Ez zuen unibertsitateko arduradunen babesik izan, ez alderdi politiko edo sindikatuena, ez enpresena, ez komunikabideena, ez *lobby*ena, ez —hark esango zukeen bezala— *mafia* ezberdinena.

Hala eta guztiz ere, Bergarako UNED egituratzean oinarritzko lana egiten hasi zen, 1976an, Paristik Euskal Herrira itzuli orduko. EHUn, Leioan, estatu-tuen diseinuan eta abarretan aritzeaz gain, Zorroagako Filosofia Fakultatearen egituratzean ere zeregin garrantzitsua izan zuen, ez soilik Filosofia-ikasketak euskalduntzeko ahaleginean, Logika eta Zientziaren Filosofia sailaren egituratzean ere rol erabakigarria izan zuen; irakasle soil gisa hasieran, Logikako katedradun gisa gero, sailaren zuzendari gisa ere bai, baina, batez ere, irakasle berrien formakuntzan. Sekulako lana egin zuen saila osatzen eta are ikerketa-egitura berriak sortzen ere. Doktorego-programen, master-ikasketen, eta lizentzia eta graduen diseinuetan parte hartu zuen buru-belarri. Halaber, Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutua sortu zuen —ILCLI, ingelesezko izenaren akronimoaren arabera—.

Bertatik bertara ezagutu zuen Stanford Unibertsitateko ikerketa-zentro batean inspiratuta sortu zuen ILCLI Jesus Marik. Eta, 1993ko abenduko sorrera ez-ofizialek aurrera, horren osatze- eta egituratze-lanetan ibili behar izan zuen batik bat, filosofian eta kognizio-zientzietan eta, oro har, giza zientzietan mundu mailan ezaguna den ikerketa-zentro bat erdietsi arte. Euskara eta ingelesa ditu lan-hizkuntza, eta bertako eta kanpoko ikertzaileak langile. Ez zen erraza izan institutua maila horretara eraman eta hor mantentzea, beste behin, unibertsitate-agintarien babes eskasa izan zuelako, eta, egiari zor, agintari askoren kontrako jarrera ere bai; haiei galdetu beharko litzaike zergatik. *Gogo*a aldizkari honen sorreran ere izan zen Jesus Mari, Xabier Arrazolarekin batera. Hasiera hura ere ez zen erraza izan.

Inondik ere, egitura-sortzaile handia izan zen Jesus Mari unibertsitatean. Nolanahi ere den, batez ere, irakasle izan da. Euskal unibertsitate publikoko filosofia-ikasleen orain arteko belaunaldi guztien irakasle ahaztezina. Ahaztu gabe geroko irakasle izango ginenon formatzaile erabakigarri gisa bete duen eginkizuna. Ikertzaile gisa doktorego-ikerketan estu hezi gintuen EHUko filosofia-irakasle izango ginenetako mordoxka bat (Arrazola zena, Arrieta, Carrascal, Migura, Pérez Miranda...). Filosofiakoak izango ez ziren batzuk ere bai, izan EHUkoak edo beste unibertsitate batekoak (Alonso, Ezenarro, Gómez Txurruka zena, Marín, Ulazia...), eta baita unibertsitatearekin lotura zuzenik gehiago izan ez duten beste hainbat ere (Arranz, Marroquín, Iztueta...). Unibertsitate bat egitea irakasle-ikertzaileak hezte da nagusiki, eta Jesus Marik egin zuen bere zatia hor. Nahi eta nahi ez, onerako nahiz txarrerako —gogo onez eta harro batzuek, ez horrenbeste beste batzuek—, haren marka, haren zigilua, eramango dugu gure irakaskuntzan eta ikerkuntzan.

Ikertzaile gisa, logika izan zuen eremu nagusia: ereduaren teoria esaten zaionaren alorrean egin zuen doktorego-tesia. Eta, ikasleak formatzeare-

kin batera, logikaren aplikazioei jarri zien arreta. Logika arrazoitzearen azterketara aplikatua, edo hizkuntzaren estudio semantiko eta pragmatikora, edo gogo-egoeren azalpena, edo adimen artifizialaren oinarrietara, aplikazio horietako batzuk besterik ez aipatzearen. Bere lan propioen bidez baino gehiago besteekin batera egindako lanen bitartez eman ditu ezagutzera bere ikerketaren emaitzak, ikertzaile gazteok ingelesez eta nazioarteko aldizkarietan argitaratzera bultzatuz.

2017an hartu zuen erretiroa EHUtik. Min ematen du gogoratzeak nola. Bulegoak husteko ere apenas izan zuen laguntzarik. Giltzak, aparkaleku- eta liburutegi-txartelak, eta e-maila kendu zizkioten biharamunera itxaron gabe. Unibertsitateari bizitza eskaini zionak ezin bide zuen ekarpenik egin gehiago; liburutegia bera osatzen parte hartu zuenak galdua behar bide zuen liburutegian liburuak maileguan hartzeko eskubidea. Erretiratuekin unibertsitateak erakusten duen jokabide gerontofobikoa orokorra izateak ez du kasu partikularretan eragiten duen mina arintzen.

Erretiratu orduko, osasun-problema ugartzen eta larritzen hasi zitzaizkion, baina ez zioten diagnostikoa asmatzen. Orain bi urte inguru, 2021eko apirilaren erdialdean, Lewyren gorputzak gaitza diagnostikatu zioten. Eta uste baino azkarragoa izan zuen gainbehera. San Pedro egunean hil zen.³

***Tarzanen orroa* (2021eko ekainaren 30ean argitaratua GARA, NAIZ eta BERRIAN)**

Tabucchiren Pereirak nola, halaxe ari naiz ohar nekrologiko hau idazten, alde aurretik. Une honetan ez baitakit zenbat denbora geratzen den. Sumatzen dut, hala ere, ezinezkoa egingo zaidala herioaren ondoko egunetan ezer idaztea. Gaur ere malkoek lausotzen didate ikusmena, baina ez lerroz lerro aurrera egitea galarazteko beste.

Lehen sintomak agertu eta bi eta zortzi urte arteko bizitza izaten omen dute Lewyren gorputzen gaitza daukatenek. Sintomak zehazki noiz hasi zitzaizkion inork ez dakienez, ezin asma daiteke zenbat geratzen zaion.

Nolanahi ere, apirilaren erdialdera diagnostikoa esan ziotenean, hiltzeko erabakia hartu zuen. Eta jateari eta edateari utzi zion. Egun batzuk lehenago, artean diagnostikoa ezagututa egoeraren larriaz jabetua ez nintzela, haluzinazioez eta paranoiez hitz egin genuen erdi txantxetan. Eta Kurt Gödel logikari

³ Ezin dugu ahaztu Txomin Peillen Karrikaburu, 2022ko abenduaren 29an Kanbon zendu zena. 2008tik GOGOĀren Aholku Batzordekidea izan zen. Urte horietan ez zitzaion egokitu GOGOĀrako lan handirik egiterik, eta harekin izan genuen harremana ez zen oso estua izan, Jesus Mari Larrazabal zenak pertsonalki izan zuenaz harago. GOGOĀK harekin izandako zorra aitortu nahi du, nolanahi ere.

handiaz, nola goseak hil zen pozoituko zuten beldurrez. Berak ere gose-egarriz hiltzea nahiago zuen, nonbait, burua galduta bizi baino. Eta amari agur esan ahal izatea eskatu zuen.

Ama eraman zioten ospitalera. Eta beren gauzez jardun omen zuten. Gauzen ordena naturalak hala eskatuta (eta ez logikak, ozenki ohartaraziko ligukeenez), ama baino lehen ezin hil zitekeela erabaki bide zuen orduan. Jaten hasi, giharrak indartzeko errehabilitazioa serio hartu eta etxera eraman zuten zenbait aste geroago; berak ez zekien esaten zenbat, ezagutu dudan oroimen handieneko pertsona galtzen hasia baitzen epe motzekoa. Pertzepzioak ere iruzur egiten zion. Baina adimenak eta epe luzeko oroimenak ez. Filosofiaz, logikaz, literaturaz eta liburuez, bere liburu maiteez hitz egin genuen. Eta bere haluzinazioez eta paranoiez. Eta bere lagun eta etsaiez. Biharamunean berriz ospitaleratu behar izan zuten. Ez dakit oraintxe noiz arte.

Hau idazten ari naizela, maiatzaren 3an, ez dakit esaten bere burua hilko duen, edo hiltzeko laguntza beharko duen, edo zer. Dakidana da, hau irakurtzen duzunean, ez dela gehiago Tarzanen orrorik izango. Zumaiako itsasoaren orroa da geratuko dena. Eta gainontzekoa isiltasuna izango da.

Erreferentziak

- HUIZI, Pello. 1988. "Escalas de sinceridad en función de instrucciones, inteligencia y sexo". *Psicologemas* 20: 237-51.
- HUIZI, Pello. 1994. *Nortasunaren eta edukiaren ondorioak arazoibide silogistikoan*. Dokto-re-tesia. UPV/EHU.
- KORTA, Kepa eta Jesus M. LARRAZABAL (arg.). 2011a. *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- KORTA, Kepa eta Jesus M. LARRAZABAL. 2011b. "Hitzaurrea". In K. Korta eta J. M. Larrazabal (arg.), 2011a, 9-11.
- KORTA, Kepa eta Larraitz ZUBELDIA (arg.). 2018. *Jesus Mari Larrazabali, 70.ean esker onez. Gogoa* 18 (ale berezia).
- KORTA, Kepa. 2018. "Politika, logika eta maitasuna". In K. Korta eta L. Zubeldia (arg.), *Jesus Mari Larrazabali, 70.ean esker onez. Gogoa* 18 (ale berezia): 1-15. DOI <https://doi.org/10.1387/gogoa.20356>
- KORTA, Kepa. 2021. "Tarzanen orroa".
- GARA, 2021, ekainak 30. https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2021-06-30/hemeroteca_articles/tarzanen-orroa
- NAIZ, 2021, ekainak 30. <https://www.naiz.eus/eu/blogs/kepa-korta/posts/tarzanen-orroa>
- BERRIA, 2021, ekainak 30. <https://www.berria.eus/albisteak/199824/tarzanen-orroa.htm>

Donostian, 2023ko apirilaren 19an
Kepa Korta